

..... AUTONOMIA-ERKIDEGOAREN ETA  
ECOEMBALAJES ESPAÑA SA SOZIJETATEAREN ARTEKO  
LANKIDETZARAKO ESPARRU-HITZARMENA

**BILDURIK:**

.....(e)(n), 2023ko .....ren ....(e)(a)n.

Alde batetik, ..... autonomia-erkidegoa, zeina ekitaldi honetan..... jaunak,  
..... sailburuak, ordezkatzeko baitu, ondore horietarako berariaz eskumena duen aldetik.

Aurrerantzean, **autonomia-erkidegoa**.

Bestetik, Ecoembalajes España SA irabazi-asmorik gabeko sozietate anonimoa (Helbidea: Calle de Cardenal Marcelo Spínola, 14, 2ª planta, Madrid. Madrilgo Merkataritza Erregistroan inskribatua, sozietateen liburuako 8. ataleko 12100 liburukian, 17. folioan, M-190844 orrian. IFZa: A/81601700). Ekitaldi honetan Rosa Trigo andreak ordezkatzeko du, kontseilari delegatua den aldetik.

Aurrerantzean, **Ecoembes**.

**ADIERAZTEN DUTE:**

1. Ecoembes ontzi arinen eta ontzi-hondakinen Ekoizleen Erantzukizun Hedatuaren Sistema Kolektibo (EEHKS) bat da, ekonomia zirkularerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 2022ko apirilaren 8ko 7/2022 Legean (aurrerantzean, “**Hondakinen Legea**”) eta ontzien eta ontzi-hondakinen abenduaren 27ko 1055/2022 Errege Dekretuan (aurrerantzean, “**Errege Dekretua**”) ezarritakoaren arabera.
2. Ecoembes irabazi-asmorik gabeko erakunde gisa eratu dago Hondakinen Legearen 50. artikuluan eta Errege Dekretuaren 20. artikuluan arabera, sistemara atxikitako ekoizleen erantzukizun hedatuko obligazioak –Errege Dekretuan ezartzen direnak– betetzea du helburu, eta Madrilgo autonomia-erkidegoaren baimena du. Han du egoitza, eta handik Espainia osoan ontzi arinen eta ontzi-hondakinen Ekoizleen Erantzukizun Hedatuaren Sistema Kolektibo (EEHKS) gisa jarduten du. Erantsita doa baimen hori, I. ERANSKIN gisa.
3. Errege Dekretuaren 33. artikuluan arabera, ekoizlearen erantzukizun hedatuko sistema kolektiboek hitzarmenak egingo dituzte herri-administrazioekin, haien produktuetatik sortzen diren hondakinen kudeaketa finantzatzeko eta, hala badagokio, antolatzeko. Hitzarmen horiek arautuko dituzte herritarrak informatzeko eta sensibilizatzeko kanpainak ere: herri-administrazioek egingo dituzte kanpaina horiek, eta sistemei dagokie haiek finantzatzea, ezartzen den

kopuruan eta zenbatekoarekin, baldin eta hitzarmenak ez badu berariaz Sistemaren esku uzten aipatutako kanpainak egiteko ardura.

4. Hondakinen Legean eta Errege Dekretuan aurreikusten denari jarraikiz, autonomia-erkidegoarekin sinatu ahal izango dira hitzarmenak, eta haren ardura izango da tokiko erakundeek negoziazioan parte har dezaten bermatzea.
5. Indarrean dagoen legerian hondakinak birziklatzeko eta/edo balorizatzeke ezarrita dauden helburuak betetzeko asmoz, alderdi biek finkatu nahi dituzte hitzarmen honetan erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak autonomia-erkidegoko lurralde-eremuan materialen arabera dagokion bezala gaika biltzeko, horiek bereizteko eta ontzi-hondakinak birziklatzeko eta/edo balorizatzeke programa integral bat garatzeari dagokionez dagozkien eskubideak eta obligazioak, herritarrak informatzeko eta sentsibilizatzeko kanpainak garatzea eta finantzatzea barne direla.

Alderdiek, duten ordezkartzan, hitzarmen hau xedatzeko behar besteko ahalmen juridikoa aitortzen diote elkarri, eta hitzarmena sinatzen dute, eta klausula hauek hartuko dira kontuan:

# KLAUSULAK

## I. KAPITULUA

### **XEDEA, ESPARRUA ETA ALDERDIEN KONPROMISOAK**

#### **1. artikulua            Xedea**

Hitzarmen honen xedea da ekoizleen erantzukizun hedatuko sistema kolektiboak (aurrerantzean, EEHSK) a Autonomia-erkidegoko lurralde-eremuan izango duen funtzionamenduari dagokionez autonomia-erkidegoak, beren borondatez atxikitzen diren tokiko erakundeek eta Ecoembesek izango dituzten konpromisoak arautzea, Hondakinen Legea, Errege Dekretua eta gaiarekin lotutako gainerako araudia bete dadin bermatzeko.

#### **2. artikulua            Esparrua**

Hitzarmen hau autonomia-erkidegoaren lurralde-eremuan ekoiztutako eta EEHSK sistemara atxikitako ontzi arinei eta ontzi-hondakinei aplikatuko zaie (aurrerantzean, “ontziak”). Esparru horrek EEHSK sistemara atxikitako ontzi arinak Errege Dekretuan ezarritako moduan biltzearen eta berreskuratzearen kostuak eta hitzarmen honetan jasotzen diren jardueren kontrolerako eta jarraipenerako gainerako beharrezko kostuak finantzatzera mugatzen du Ecoembesen erantzukizuna, bereziki ezarritako kudeaketa-sistemak ez daudenean eskusiboki EEHSK sistemara atxikitako ontzi arinak eta ontzi-hondakinak kudeatzera bideratuta.

Errege Dekretuaren 21.2 artikuluan ezartzen den bezala, ontzien tipologia eta material bererako ekoizleen erantzukizun hedatuko hainbat sistema daudenean, eta beharrezkotzat jotzen bada, Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioak, Hondakinen arloko Koordinazio Batzordeak proposatuta, Estatu mailan eta autonomia-erkidego mailan sistema bakoitzak gaikako bilketari dagokionez urtealdirako bete behar dituen gutxienerako helburuei buruz Ingurumenaren Kalitate eta Ebaluaziorako Zuzendari Nagusiak emandako ebazpena argitaratuko du bere webgunean.

Helburu horiek kalkulatzeko, aurreko urteko merkatu-kuota aplikatuko zaie gaikako bilketaren Estatu gutxienerako helburuei, zeina ekoizleen erantzukizun hedatuko sistema bakoitzaren Produktu Ekoizleen Erregistroko ontzi arinen ataletik aterako baita.

### **3. artikulua                    Hitzarmenaren xede diren jarduketak**

- 3.1. Beharrezko konpromisoak ezartzea, bermatzeko Ecoembesek betetzen dituela berari atxikitako ekoizleek merkaturatutako produktu ontziratuen hondakinak birziklatzeko eta gaika biltzeko helburuak, Errege Dekretuan aurreikusitakoak.
- 3.2. autonomia-erkidegoko tokiko erakundeek Ecoembesen ontzien EEHSK sisteman parte hartzeko modua arautzea.
- 3.3. Hondakinak biltzeko eta bereizteko prozedurak ezartzea, ontzi-hondakinek eta berreskuratutako materialek bete behar dituzten kalitate-baldintzak ere jasoko dituztenak.
- 3.4. Bereziki, paperezko-kartoizko material bakarreko ontziak gaika biltzeko eta plastikozko ontzien, edari/jakietarako kartoizko ontzien eta metalezko ontzien (aurrerantzean, ontzi arinak) material anitzeko gaikako bilketarako sistemak gara daitezen sustatzea, gizartearen onarpeneko, energia-eraginkortasuneko eta bideragarritasun ekonomiko eta ingurumen-bideragarritasuneko irizpideekin.
- 3.5. Ezartzea zer zenbateko ordainduko dizkion Ecoembesek EEHSK sistemara atxikitako ontzien material berreskuratuen truke tokiko erakundeei edo, hala badagokio, autonomia-erkidegoari kostu efektibo gisa ordainduko dizkion kantitate ekonomikoak, Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera.
- 3.6. Ontzi arinen eta kartoizko eta paperezko ontzien birziklatzeari buruzko informazioa emateko eta ingurumenari dagokionez sentsibilizatzeo kanpainak egin daitezen sustatzea, gaikako bilketaren eraginkortasun-maila handitzeko, bildutako hondakin-kopuruari eta oker utzitakoak egoteari dagokienez.
- 3.7. Ontzi-hondakinak haien materialen arabera dagokion moduan birziklatu eta/edo balorizatu daitezen bermatzeko mekanismoak ezartzea, indarrean dagoen legerian aurreikusitakoaren arabera.
- 3.8. Ontziratutako produktuak merkatuan lehen aldiz jartzearen erantzule diren agenteek araudia bete dezaten sustatzeko beharrezko jarduketak sustatzea, indarrean dagoen eskumen-araubidearen arabera, merkatuan jartzen diren ontziak definitzeko eta helburuak lortzeko, sistemaren euskarri ekonomikoa egokia izan dadin eta merkatuko lehiakortasun-baldintzei eusteko.
- 3.9. Hitzarmen honetan aurreikusitakoa bete dadin bermatzeko beharrezko mekanismoak ezartzea, informazio zorrotza eta kontrastagarria trukatzeko neurriak ezarriz, EEHSK sistemaren emaitzen jarraipena egiteko eta araudian jasotzen diren berri-emateko obligazioak betetzeko, bai eta ikuskapenerako, jarraipenerako eta kontrolerako neurriak ere, hondakinei eta ontzi-hondakinei buruzko araudia bete dadin bermatzeko.
- 3.10. Errege Dekretuaren 33.6 artikuluan aurreikusitakoari erantzutea, gardentasunari dagozkion obligazioak bete daitezen ahalbidetzeko.

#### **4. artikulua                   Autonomia-erkidegoaren konpromisoak**

Autonomia-erkidegoak konpromiso hauek hartzen ditu, hitzarmen honetan finkatutako baldintzetan:

- 4.1.     Hitzarmen hau tokiko erakundeei helaraztea sinatzen denetik xx asteko gehieneko epearen barruan, hitzarmenari atxiki ahal izan dakizkion, eta tokiko erakunde bat EEHSK sistemari partaide gisa atxikitzen zaionean Ecoembesi horren berri ematea.
- 4.2.     Ontzi-hondakinak gaika biltzeko eta berreskuratzeko programa integral bat planifikatu, koordinatu, kudeatu eta haren jarraipena egin dadin sustatzea eta, hala badagokio, zeregin horretan parte hartzea, onarpen sozialeko, eraginkortasun teknikoko eta bideragarritasun ekonomiko eta ingurumen-bideragarritasuneko irizpideekin eta lurraldeko tokiko erakundeekin lankidetzan; hori guztia ontzi-hondakinaren kudeaketari aplikagarri zaion eskumen-araubidearen arabera egingo da.
- 4.3.     Ontzi arinen eta kartoizko eta paperezko ontzien birziklatzeari buruzko informazioko eta ingurumenari buruzko sentsibilizazioko jarduketetan parte hartzea, gaikako bilketaren eraginkortasun-maila handitzeko eta herritarren parte-hartzea sustatzeko, hori beharrezkoa baita Errege Dekretuan definitzen diren helburuak lortzeko.
- 4.4.     Hitzarmen honetan aurreikusten diren jarduketa guztien jarraipena egiteko eta, zehazki, Ecoembesi atxikitako ontzien merkaturatzearen, gaikako bilketaren, berreskuratzearen eta birziklatzearen ekarpen ekonomikoa eta emaitzak kalkulatzeko balio izango duten elementuen baliozkotasuna ziurtatzeko behar diren ikuskapeneko, kontroleko eta zehapeneko bide guztiak martxan jartzea. Hala badagokio, instalazioetako operadoreen bitartez parte hartzea hondakinak kudeatzeko prozesuaren fase guztietako aldizkako karakterizazioak egiten; karakterizazio horiek hondakinaren trazabilitatea baieztatzeko balio izango dute, hitzarmen honetan ezarritako metodologia erabilita. Aipatutako operazioen esparruan desbideraketak edo arau-hausteak detektatuz gero, behar diren neurriak hartzea eta,, hitzarmen honen barruan, Ecoembesek garatzen diren operazioak bere kabuz edo kanpoko enpresen bitartez kontrola ditzan bermatzea. Halaber, tokiko erakundeekin eta Ecoembesekin hitzarmen honetan aurreikusten diren jarduketak garatzeko eta horien jarraipena egiteko interesekoa den beste edozein informazioa trukatzeko. Hala badagokio, eta ontzi-hondakinak berreskura daitezzen bultzatzeko helburuz, autonomia-erkidegoko gaikako bilketaren emaitzei buruzko informazioa zabaltzea.
- 4.5.     EEHSK sistemak autonomia-erkidegoan lortzen dituen emaitzen jarraipena egiteko, emaitzak kontrolatzeko eta baliozkotzeko sistema bat ezartzea, hitzarmen honen garapenean sortzen den informazioan oinarrituta, eta hitzarmenaren emaitzak ministerioari helaraztea, emaitzen jarraipena egiteari eta emaitzak bidaltzeari buruz araudian aurreikusten dena betetzeko.

- 4.6. Ontziratutako produktuak merkatuan lehen aldiz jartzearen erantzule diren agenteek Errege Dekretuan jasotzen diren obligazioak bete ditzaten eta gerta litezkeen arau-haustek prebenitzeko eta zuzentzeko beharrezko jarduketak sustatzea, indarrean dagoen eskumen-araubidearen arabera, merkatuan jartzen diren ontziak behar bezala definitzeko eta helburuak lortzeko, obligazioa duten ekoizleek sistemari behar bezalako euskarri ekonomikoa eman diezaioten eta merkatuko lehiakortasun-baldintzei eusteko.
- 4.7. Gaikako bilketarako udal zirkuituetan gerta litezkeen lapurretako eta desbideraketako egoera irregularrak edo legez kontrakoak prebenitzeko eta zuzentzeko behar diren jarduketak sustatzea, indarrean dagoen eskumen-araubidearen arabera.
- 4.8. Beste EEHSK batzuk baimenduz gero, Koordinazio Batzordeari edo beste EEHSK batzuk baimendu dituen autonomia-erkidego eskudunari jakinaraztea haiek egindako arau-haustek.

## **5. artikulua           Ecoembesen konpromisoak**

Ecoembesek konpromiso hauek hartzen ditu, hitzarmenean finkatutako baldintzetan:

- 5.1. Hitzarmen honen II. ERANSKINEAN ezartzen diren zenbatekoak finantzatzea edo tokiko erakundeen eskura edo, hala badagokio, autonomia-erkidegoen eskura jartzea, III. ERANSKINEA adierazten diren epeekin. Ecoembesek merkatuan jarritako bere erantzukizunpeko ontzien arabera erantzungo die bere obligazio ekonomikoei, eta beste EEHSK batzuekin akordioetara iritsiko balitz, haiei dagozkien ordainketak horretarako sortu beharko litzatekeen mekanismo baten bitartez bideratu ahal izango litzuke.
- 5.2. Hitzarmen honen esparruan berreskuratu eta IV. ERANSKINEAN jasotzen diren berreskuratutako materialen zehaztapen teknikoak (aurrerantzean, BMZT) betetzen dituzten eta Ecoembesen eskura jartzen diren EEHSK sistemara atxikitako paperezko eta kartoizko ontzien hondakinak eta ontzi arinen hondakinak birziklatu eta/edo balorizatu daitezen bermatuko du, V.ERANSKINEAN ezartzen den prozedurari jarraikiz. Ecoembesek merkatuan jarritako bere erantzukizunpeko ontzien birziklatzea eta/edo balorizatzea bermatuko du, eta beste EEHSK batzuekin akordioetara iritsiko balitz, haiei dagozkien ontzien birziklatzearen eta/edo balorizatzearen bermea horretarako sortu beharko litzatekeen mekanismo baten bitartez bideratu ahal izango luke.
- 5.3. Tokiko erakundeekin edo, hala badagokio, autonomia-erkidegoarekin kolaboratuko du, paperezko eta kartoizko material bakarraren bilketaren eta ontzi arinen bilketa eta bereizketaren eraginkortasuna hobetzeko.
- 5.4. Hitzarmen hau garatzeari eta honen jarraipena egiteari buruz VII. ERANSKINEAN adierazten den informazioa emango dio autonomia-

erkidegoari. Halaber, atxikitako tokiko erakundeekin eta autonomia-erkidegoekin hitzarmenerako interesekoa den edozein informazio trukatu du. Hala badagokio, eta ontzi-hondakinak berreskura daitezzen bultzatzeko, autonomia-erkidegoko gaikako bilketaren emaitzei buruzko informazioa zabalduko du.

- 5.5. Autonomia-erkidegoarekin kolaboratuko du, beste EEHSK batzuekin egon litezkeen desadostasunak argitzeko.
- 5.6. Hitzarmen honetan aurreikusten diren jarduketa guztien jarraipena egiteko behar diren kontrolak martxan jarriko ditu, zehazki ekarpen ekonomikoa kalkulatzeko balio izango duten elementuen baliozkotasuna —IV. ERANSKINEAN aurreikusitakoaren arabera— eta jarduketa-eremuko ontziak biltzeko eta birziklatzeko helburuak bete daitezzen ziurtatzeko, indarrean dagoen araudiaren arabera. Hala badagokio, instalazioetako operadoreen bitartez, hondakinak kudeatzeko prozesuaren fase guztietako aldizkako karakterizazioak egiten parte hartuko du; karakterizazio horiek hondakinen trazabilitatea baieztatzeko balio izango dute, eta hitzarmen honetan ezarritako metodologia erabilia egingo da hori. Aipatutako operazioetan desbideraketak edo arau-hausteak detektatuz gero, behar diren neurriak hartzea.
- 5.7. Ontzi arinen eta kartoizko eta paperezko ontzien birziklatzeari buruzko informazioko eta ingurumenari buruzko sentsibilizazioko jarduketetan kolaboratzea, gaikako bilketaren eraginkortasun-maila handitzeko eta herritarren parte-hartzea sustatzeko, hori beharrezkoa baita Errege Dekretuan definitzen diren helburuak lortzeko.
- 5.8. Ontziratutako produktuak merkatuan lehen aldiz jartzearen erantzule diren agenteek Errege Dekretuan jasotzen diren obligazioak bete ditzaten eta gerta litezkeen arau-hausteak prebenitzeko eta zuzentzeko beharrezko jarduketak sustatzea, indarrean dagoen eskumen-araubidearen arabera, merkatuan jartzen diren ontziak behar bezala definitzeko eta helburuak lortzeko, obligazioa duten ekoizleek sistemari behar bezalako euskarri ekonomikoa eman diezaioten eta merkatuko lehiakortasun-baldintzei eusteko.
- 5.9. Ecoembesek beste autonomia-erkidego batzuekin xede bera duten hitzarmenak sinatzen baditu eta hitzarmen horietan autonomia-erkidego edo tokiko erakunde atxikientzako hitzarmen honetan hitzartutakoak baino baldintza onuragarriagoak edo hobeak hitzartzen baditu, autonomia-erkidegoari horren berri emango dio, eta horri buruz 21. artikuluan jasotzen diren berrikuspen-mekanismoak martxan jarriko ditu.

## **6. artikulua Tokiko erakundeen atxikipenak**

- 6.1. Haien borondatez hitzarmen honi atxiki nahi zaizkion tokiko erakundeek autonomia-erkidegoari jakinaraziko diote, eta XII. ERANSKINEAN jasotzen den atxikipen-hitzarmeneko ereduaren arabera hitzarmena formalizatuko dute. Autonomia-erkidegoak atxikitze horien berri emango diote Ecoembesi, eta atxikipen-hitzarmen bakoitzaren kopia bana bidaliko diote, autonomia-

erkidegoak hitzarmena sinatzen (edo jasotzen) duenetik hogeit egun baliioduneko gehieneko epearen barruan. Esparru-hitzarmen honi atxikitze epea ----- izango da, eta 2024ko urtarrilaren 1az geroztiko atzerako indarra izango du efektu ekonomikoari dagokionez.

- 6.2. Ezarritako epearen barruan atxikitzea formalizatu eta komunikatu ez duten tokiko erakundeek ez dute parte hartuko hitzarmen honetan aurreikusten diren ontzi-hondakinak kudeatzeko mekanismoetan, eta esparru-hitzarmen honen aplikaziotik kanpo geldituko dira haien atxikitzea formalizatzen eta komunikatzen duten arte, halakorik gertatzen bada. Kasu honetan, atxikipen-hitzarmena sinatzen den hilabeteko hilaren 1etik aurrera aplikatuko dira efektu ekonomikoak, atzerako indarrak gabe.

## **7. artikulua                    Atxikitako tokiko erakundeen konpromisoak**

Ondorengo konpromisoak hartuko dituzte hitzarmen honi atxikitzen zaizkion tokiko erakundeek:

- 7.1. Haien parte-hartzearen baldintzak arautzen dituen hitzarmen honetan ezarritako baldintzak formalki onartzea.
- 7.2. Hala badagokio, hondakinen kudeaketarako aplikagarria den eskumen-araubidearen arabera, EEHSK sistemara atxikitako ontzietarako, paperezko eta kartoizko material bakarreko hondakinen gaikako bilketa eta ontzi arinen material anitzeko hondakinen gaikako bilketa egingo dute, onarpen sozialeko, eraginkortasun teknikoko eta bideragarritasun ekonomikoko eta ingurumen-bideragarritasuneko irizpideekin, hitzarmen honetan definitzen diren baldintzetan. Gaikako bilketaren barruan sartzen dira honako lan hauek:
- Gaikako bilketa bera.
  - Hondakinak bereizketa- eta sailkapen-instalazioetara eramatea edo, hala badagokio, zuzenean eramatea baimendutako kudeatzaileei, hondakinok birziklatzeko edo balorizatzeke.
  - Hondakinak bereizteko eta sailkatzeke lanak.
  - Sailkatutako hondakinak entregatzea, dagokion tratamendua emateko, hondakinok birziklatuta, balorizatuta edo deuseztatuta, kasu bakoitzean dagokionaren arabera.
- 7.3. Hala badagokio, tratamendu mekaniko biologikoko (TMB) instalazioetan errefusako edo heze-lehor sistemetako hondakin lehorretako ontzi-hondakinak berreskuratzea eta materialen arabera bereiztea eta, ondoren, horiek dagokien tratamendurako entregatzea —birziklatzeko edo balorizatzeke—, baldin eta teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenari dagokionez bideragarria bada.
- 7.4. Sistemaren emaitzak eta eraginkortasuna etengabe hobetzea lortzeko beharrezko neurriak martxan jartzea, horretarako autonomia-erkidegoaren eta Ecoembesen arteko lankidetzak eta parte-hartzea ahalbideratuz. Bereziki,



ontzien gaikako bilketa udalen hondakinen kudeaketaren arloan behar bezala integra dadin bermatzea.

- 7.5. Dagozkion fakturak aurkeztea, II. ERANSKINA<sup>7</sup> aplikatuz, III. ERANSKINEAN adierazten den moduan eta azaltzen den justifikazio-dokumentazioarekin.
- 7.6. EEHSK sistemaren emaitzen jarraipena egiteko informazioa ematea, eta hitzarmenaren emaitzak Ministerioari helaraztea, Ontziei buruzko Errege Dekretuan aurreikusten dena betetzeko.
- 7.7. IV. kapituluan ontzi-hondakinen balorizazioari eta birziklatzeari buruz aurreikusten dena garatzea. Zehazki, Ecoembesi birziklatutako eta balorizatutako hondakinei dagozkien ziurtagiriak ematea, Ecoembesek Errege Dekretuan ezartzen diren informazio-obligazioak bete ahal izan ditzan.
- 7.8. Hitzarmen honetan aurreikusten diren jarduketa guztien jarraipena egiteko behar diren kontrolak martxan jartzea, zehazki Ecoembesen ekarpen ekonomikoa kalkulatzeko balio izango duten elementuak baliozkoak izan daitezen eta hondakinak kudeatzeko operazioak behar bezala egiazta daitezen ziurtatzeko. Instalazioko operadoreen bitartez, hondakinak kudeatzeko prozesuaren fase guztietako aldizkako karakterizazioak egiten parte hartzea; karakterizazio horiek hondakinen trazabilitatea baieztatzeko balio izango dute, eta hitzarmen honetan ezarritako metodologia erabilia egingo da hori. Aipatutako operazioen esparruan desbideraketak edo arau-haustekak detektatuz gero, behar diren neurriak hartzea eta, hitzarmen honen barruan, Ecoembesek berak edo haren operadoreek garatzen dituzten jarduerak kontrolatzeko eta jarduera horien jarraipena egiteko eskubidea izan dezan bermatzea. Halaber, autonomia-erkidegoekin eta Ecoembesekin hitzarmena garatzeko interesekoa den beste edozein informazio trukatzeko.
- 7.9. Ontzi arinen eta kartoizko eta paperezko ontzien birziklatzeari buruzko informazioko eta ingurumenari buruzko sentsibilizazioko jarduketetan parte hartzea, gaikako bilketaren eraginkortasun-maila handitzeko eta herritarren parte-hartzea sustatzeko, hori beharrezkoa baita Errege Dekretuan definitzen diren helburuak lortzeko.
- 7.10. Beharrezkoa bada, hondakinei buruzko udal-ordenantzak eta bestelako xedapenak edo hirugarrenekin egindako kontratuak egokitzea, hitzarmenari atxikitzearen ondorioz hartutako konpromisoak bete ahal izateko.
- 7.11. Gaikako bilketarako udal-zirkuituetan gerta litezkeen hondakin-lapurretako legez kontrako egoerak prebenitzeko eta zuzentzeko beharrezko jarduketak sustatzea, indarrean dagoen eskumen-araubidearen arabera.
- 7.12. Autonomia-erkidegoan gaikako bilketaren helburuak betetzen dituen eta ontzien zirkulartasuna sustatuko duen kalitate handiko birziklatzea lortzeko, erakundeak bere jardun-esparruan dagozkion tresna ekonomikoak gaituko ditu —Hondakinei eta Kutsatutako Lurzoruei buruzko Legearen 11.

artikuluari eta V. ERANSKINEAN adierazitakoaren arabera—; adibidez, hondakinei buruzko ordenantzak eta ordenantza fiskala egokitu behar direnean, hondakinen araberrako ordainketa-sistemak ezartzeko berezita entregatzen ez diren hitzarmen honen esparruko hondakinertako.

- 7.13. Errefusaren, heze-lehor sistemertako hondakin inorganikoen —apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 25.6 artikuluan aurreikusten den salbuespena aplikatzen ez denean— eta bide publiko, berdegune, jolasgune eta hondartzen garbiketaren ondoriozko Ecoembesen ekarpenak tokiko erakundeen artean banatzea. II. ERANSKINEAN ezarritakoaren arabera zehaztuko dira ekarpen horien zenbatekoak eta zenbateko horiek ezartzeko irizpideak.

## **II. KAPITULUA**

### **FAKTURAZIOA ETA ORDAINKETA**

#### **8. artikulua Fakturazioa**

- 8.1. Tokiko erakundeek edo, hala badagokio, autonomia-erkidegoak II. ERANSKINEAN jasotzen diren kontzeptuak fakturatuko dizkiote Ecoembesi, III. ERANSKINEAN ezartzen den moduan eta han ezarritako justifikazio-dokumentazioa emanez. Ez dira faktura osotzat joko Eranskin horretan adierazten den dokumentazioa jasotzen ez duten fakturak, ezta fakturazioaren arloan indarrean dagoen araudiak exijitzen dituen formalitateak betetzen ez dituztenak ere. Tokiko erakundeek edo, hala badagokio, autonomia-erkidegoak aplikagarria den indarreko araudia betetzen duten fakturak baino ez dituzte jaulkiko.
- 8.2. Fakturatutako zenbatekoak egiaztatzeo, autonomia-erkidegoak edo atxikitako tokiko erakundeek Ecoembesen eskura jarriko dute III.ERANSKINEAN adierazten den dokumentazioa edo, hala badagokio, aipatutako dokumentazioan jasotako informazioa egiaztatzen duen ziurtagiria, tokiko gobernuko edo autonomia-erkidegoko fede-emaile publiko batek jaulkitakoa, bai eta fakturazioaren xede diren operazio guztiekin lotutako beste edozein justifikazio-agiri ere, beti ere dagokion justifikaziorako eta aurretiazko jakinarazpenerako baliagarria baldin bada.
- 8.3. Aurrez ezarritakoaren orde, eta II. ERANSKINEAN aurreikusten diren zerbitzuak zeharkako kudeaketa-araubidearen arabera eta kontratazio publikoari buruzko araudian aurreikusten diren formuletako edozein erabilita ematen badira, tokiko erakundeak edo autonomia-erkidegoak (zerbitzuaren titularra zein den), indarrean dagoen legeriak ontzi-hondakinen kudeaketaren arloan ematen dien erantzukizunari eutsiz, II. ERANSKINEAN jasotzen diren operazioei dagozkien zerbitzuak (komunikazio-kanpainak barne) egiten dituen erakundea (edo erakundeak) izendatu ahal izango du —dagokion lizitazio-prozesuaren ondorioz esleipenduna izan dena edo izan direnak—, eta Ecoembesi jakinarazi. Une horretatik aurrera, izendatutako erakundeak

edo erakundeek egingo dituzte zuzenean fakturak eta beharrezko justifikazio-dokumentazioa aurkeztuko dute, benetan zerbitzua betetzen duten edo bete duten erakundeak baitira. Tokiko erakundeak edo autonomia-erkidegoak aldeztu behar adina denboraz komunikatu beharko dio Ecoembesi izendapenetan gerta litekeen edozein aldaketa. Izendapen hori kreditu-lagapena izango da, Kode Zibilaren 1112. artikuluan aurreikusitakoaren arabera

Fakturak jaulki behar dituen zerbitzuaren esleipenduna —atal honen arabera— hitzarmen honek indarrean dirauen bitartean aldatuko balitz, edo beste zerbitzu baterako esleipen bat izango balitz, tokiko erakundeak edo autonomia-erkidegoak kontratazio-prozeduraren emaitza eta izendapena indarrean noiz sartzen den jakinarazi beharko dio Ecoembesi.

Komunikatutako izendapenak hilabete osoz sartuko dira nahitaez indarrean.

Ecoembesek fakturazio-eskuordetza onartzeko ahalmena izango du, baita hitzarmenak indarrean irauten duen bitartean edozein unetan eskuordetza hori errefusatzeko ahalmena ere, justifikatutako arrazoiak baldin badaude; kasu horretan, Erakundearena izango da fakturatzeko obligazioa, hitzarmen honetan aurreikusitakoari jarraikiz. Kasu honetan zein fakturatzeko izendatutako erakundearekin kitatzeko zorren bat legokeen eta erakunde horrek dagoeneko zerbitzua emango ez lukeen beste edozein kasutan, zerbitzuaren titularra den Administrazioak Ecoembesekin kolaboratuko du, fakturazioaren eskuordetze-aldaketa gertatu baino lehen zor hori kitatuta gera dadin edo, hala badagokio, egoera hori konpontzeko erreklamazioa egin ahal izan dadin dagokion bide judizialek.

Aurreko hitzarmenen batean Ecoembesi komunikatutako izendapenak luzatutzat joko dira aurreko ondoretarako, baldin eta Ecoembesi aurrakoa komunikaziorik egin ez bazaio; azken kasu horretan, berriro eskatu ahal izango informazio hori, hitzarmen hau sinatu ondoren.

## **9. artikulua Ecoembesen ordainketa**

III. ERANSKINEAN aurreikusten denaren arabera ordaindu beharko ditu fakturak Ecoembesek.

### **III. KAPITULUA**

#### **ONTZI-HONDAKINAK GAIKA BILTZEKO SISTEMAK: OINARRIZKO BETEKIZUNAK**

## **10. artikulua Paperezko eta kartoizko ontzien gai bakarreko bilketa**

Alderdiek konpromisoa hartzen dute paperezko eta kartoizko ontzien gai bakarreko gaikako bilketa bultzatzeko EEHSK sistemari atxikitako ontzietarako, indarrean dagoen eskumen-araubidea aplikatuz. Paperezko eta kartoizko gainerako ontzietarako, Errege Dekretuan eta dagokion gainerako legerian xedatzen dena beteko da. Gai bakarreko

gaikako bilketatik datozen paperezko eta kartoizko ontzi-hondakinak sailkapen-zentro batean eta paper-fabrika batean entregatuko dira, birzikla daitezten.

Bilketaren ezarpen-eremua, edukiontzien zuzkidura eta kokapena eta bilketa-sistemari dagozkion gainerako parametroak definituko dira halako moldez, non berreskuratutako materialen zehaztapen teknikoak betetzeko behar den kalitateko behar adinako kantitatea lortu ahal izango baita. Horretarako, sistemaren iraunkortasuna bermatuko duten onarpen sozialeko, eraginkortasun teknikoko eta bideragarritasun ekonomiko eta ingurumen-bideragarritasuneko irizpideak aplikatuko dira. Ingurumen-bideragarritasuna erabakitzeko, hondakinen kudeaketaren inpaktuei bizitza-ziklo ikuspegiko metodologiak edo antzerakoak aplikatzea hitzartuko dute alderdiek.

BMZTak betetzerako orduan desbideraketak gertatzen badira ezarritako bilketa-sisteman papera edo kartoia ez diren eta ondoren horiek berreskuratzea zailtzen duten bestelako materialak agertu direlako, tokiko erakundeak beharrezko neurri zuzentzaileak abian jarri beharko ditu, Ecoembesen kolaborazioa ahalbidetuz.

Ontzi berberak biltzeko EEHSK bat baino gehiago baldin badago, kudeaketa- eta kontrol-operazioak finantzatzeko obligazioak banatzeko sistema egokiak ezarriko dira, baita birziklatzaileak/balorizatzaileak izendatzeko ere, sistema bakoitzari atxikitako ontzi-kopuruan oinarrituta. II. ERANSKINEAN definitzen da banaketa hori egiteko aplikatu beharreko prozedura.

## **11. artikulua Ontzi arinen gai anitzeko bilketa**

Edari eta jakietarako plastikozko, metalezko eta kartoizko ontziak —hau da, ontzi arinak— batera bilduko dira berariazko edukiontzi batean edo poltsa bidezko sistema baliokide baten bitartez, eta hautaketa-instalazioetan entregatuko dira edo, hala badagokio, transferentzia-estazioetan, ondoren hautaketa-instalazioetara garraiatzeko.

Bilketaren ezarpen-eremua, edukiontzien zuzkidura eta kokapena eta bilketa-sistemari dagozkion gainerako parametroak eskatutako bilketa-motari eta materialari egokitutakoak izango dira, eta BMZTak bete daitezten behar den kalitateko behar adinako kantitatea lor dadin definituko dira; horretarako, sistemaren iraunkortasuna bermatuko duten onarpen sozialeko, eraginkortasun teknikoko eta bideragarritasun ekonomiko eta ingurumen-bideragarritasuneko irizpideak aplikatuko dira. Ingurumen-bideragarritasuna erabakitzeko, hondakinen kudeaketaren inpaktuei bizitza-ziklo ikuspegiko metodologiak edo antzerakoak aplikatzea hitzartuko dute alderdiek.

Ontzi arinen edukiontzian eskatu ez den beste material batzuen kopuru nabarmenak agertzen badira, eskudun erakundeak behar diren neurri zuzentzaileak hartu beharko ditu, Ecoembesek kolabora dezan ahalbidetuz. Zehazki, gainerako gaiak biltzeko (papera-kartoia, beira, errefusa eta organikoa) behar adina bitarteko eta bitarteko proposak jarri daitezten bermatu beharko du erakunde eskudunak, eta ontziei ez dagozkien beste fluxu-mota batzuk (oihalak, gailu elektrikoak eta elektronikoak, tresnak eta bolumen handiko hondakinak...) kudeatzeko bestelako bitartekoak jarri beharko ditu, material horiek ez daitezten desbideratu ontzi arinen edukiontzira.

Erabiltzaileari edukiontzi horira ontzi arinak eta ontziak ez diren plastikozko eta metalezko hondakinak batera botatzea eskatuko dion gaikako bilketa-eredua ezartzen bada, EEHSK sistemari atxikitako ontzi arinen kasura mugatuko da Ecoembesek kudeaketagatik eta beharrezko kontrol- eta jarraipen-jarduketengatik eta birziklatzaileen/balorizatzaileen izendapenean izango duen erantzukizuna.

Ontzi berberak biltzeko EEHSK bat baino gehiago baldin badago, kudeaketa- eta kontrol-operazioak finantzatzeko obligazioak banatzeko sistema egokiak ezarriko dira, baita birziklatzaileak/balorizatzaileak izendatzeko ere, sistema bakoitzari atxikitako ontzi-kopuruan oinarrituta. II. ERANSKINEAN definitzen da banaketa hori egiteko aplikatu beharreko prozedura.

## **12. artikulua Beste fluxu batzuetan ontzi-hondakinak berreskuratzea**

Hitzarmen honen xede diren jarduketak bereizitako bilketatik kanpoko beste fluxu batzuetan agertzen den ontzi-hondakinen kopurua murriztera bideratuko dira.

Ecoembesek finantzatzeko du errefusatik, heze-lehor sistemetako gai inorganikoetatik eta bide publikoen, berdeguneen, jolas-guneen eta hondartzen garbiketarik EEHSK sistemari atxikitako ontzi-hondakinak berreskuratzeke prozesua, ontzietan eta ontzi-hondakinetan buruzko Errege Dekretuaren 34. artikuluan arabera, II. ERANSKINEAN definitzen den bezala eta baldin eta teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenari dagokionez bideragarria baldin bada.

Errege Dekretuaren arabera, eta hitzarmen honetako II. ERANSKINEAN zehazten den bezala, atxikitako ontzietan dagokienez 29.2 artikuluan ezartzen diren bereizitako bilketako helburuak lortzen badira, Ecoembesek ontzietan eta ontzi-hondakinetan buruzko Errege Dekretuaren 34.b.1 artikuluan ezarritako kostuen % 50 finantzatzeko du. Ordainketa hori hondakinak berreskuratzen diren instalazioen administrazio titularrei egingo die. Gaikako bilketako helburuak lortzen ez badira, Ecoembesek ezarritako kostuen gainerako % 50eko zenbatekoari dagozkion funtsak jarriko ditu, eta autonomia-erkidegoak edo, haren lagapenaren ondorioz, tokiko administrazioek Errege Dekretuan ezartzen diren bereizitako bilketako helburuak lortzera zuzendutako ekintzak finantzatzera bideratu beharko dute zenbateko hori. Hobekuntzetan inbertitzeko funts hori aplikatzen bada, urtero komunikatuko zaio autonomia-erkidegoari, urteko txostenean jasotzen diren emaitzen arabera. Urteko helburuen betetze-mailari dagozkion datuak autonomia-erkidegoari edo Jarraipen Batzordeari aurkezten zaizkionetik bi hilabeteko epean adostu beharko dira egin beharreko ekintzak eta horiek egikaritzeko epeak, eta hitzarmen honen II. ERANSKINEAN ezartzen denaren arabera kudeatuko dira.

Ontzi berberak biltzeko EEHSK bat baino gehiago baldin badago, kudeaketa- eta kontrol-operazioak finantzatzeko obligazioak banatzeko sistema egokiak ezarriko dira, baita birziklatzaileak/balorizatzaileak izendatzeko ere, sistema bakoitzari atxikitako ontzi-kopuruan oinarrituta. II. ERANSKINEAN definitzen da banaketa hori egiteko aplikatu beharreko prozedura.

## **13. artikulua Komunikazioko jarduketak**

Herritar guztiek modu aktiboan eta behar bezala parte har dezaten sustatzeko, funtsezkoa da herritarrei ontzi-hondakinen frakzio ezberdinak bereizteari, gaikako bilketari eta

horrek ingurumenean dituen onurei buruzko informazioa ematea. Herritarren behar adinako parte-hartzea —kopuruari zein kalitateari dagokionez— funtsezkoa da birziklatze- eta balorizatze-helburuak eraginkortasun ekonomiko eta ingurumen-eraginkortasunez lortzeko.

Ecoembesek erakundeei lagunduko die aholkularitza emanaz eta komunikazioko materialak eskainiz, publizitate-kanpainak batez ere, horretarako ezarritako epeetan. Halaber, alderdiek aurretiaz adostu ondoren, komunikazio-ekintza batzuk kudeatu ahal izango ditu Ecoembesek; horretarako, Ecoembesi kanpainaren kudeaketa eskuordetzeko hitzarmena formalizatu beharko du aurretiaz erakundeak, III.ERANSKINEKO ereduaren arabera. Ecoembesek eskuordetzea onartzeko eskubidea izango du eta, horretarako, funtsezko elementua izango da Erakundeak nahikoa denboraz izendatzea, kanpaina dagokion ekitaldiko abenduaren 31 baino lehen planifikatu eta abian jarri ahal izateko. Hitzarmen honen II. ERANSKINEAN definitzen da lankidetzaren ekonomikoa, eta VI. ERANSKINEAN komunikazio-kanpainak egiteko oinarriko irizpideak eta ezaugarriak jasotzen dira.

## IV. KAPITULUA

### ONTZI-HONDAKINAK BIRZIKLATZEA ETA BALORIZATZEA

#### 14. artikulua Ontzi-hondakinak birziklatzeko eta balorizatzeke bermea

- 14.1. Oro har, eta Errege Dekretuaren 29. artikuluan aurreikusitakoa betetzeko, Ecoembesek, edo harekin hitzarmenak egin dituzten hondakin-kudeatzaileek, tokiko erakundeek edo autonomia-erkidegoak haren eskura jartzen dituzten EEHSK sistemari atxikitako ontzi-hondakinak, IV. ERANSKINEAN jasotzen diren BMZTak betetzen dituztenak, V. ERANSKINAREN edukiaren arabera birziklatzea eta/edo balorizatzea bermatzen du. Ecoembesek merkatuan jarritako bere erantzukizunpeko ontzien birziklatzea eta/edo balorizatzea bermatuko du, eta beste EEHSK batzuekin akordioetara iritsiko balitz, haiei dagozkien ontzien birziklatzearen eta/edo balorizatzearen bermea horretarako sortu beharko litzatekeen mekanismo baten bitartez bideratu ahal izango luke.
- 14.2. Tokiko erakundeak, autonomia-erkidegoak edo Ecoembesek berak izendatu ahal izango du ontzi-hondakinez arduratuko den berreskuratzailea, birziklatzailea edo balorizatzailea, V. ERANSKINEAN jasotzen den berreskuratzaileak izendatzeko prozedura aplikatuz egiten duten aukeraren arabera. Egindako aukera hori aplikatuko da hitzarmen honek indarrean irauten duen denbora guztian eta, hautaketa- edo tratamendu-instalazio batean hautatutako materialen kasuan, instalazio horretan hautatutako EEHSK sistemari atxikitako ontzi-hondakin guztiei aplikatuko zaie. Lehia askearen araudia bete beharko da izendapen-prozesuetan.
- 14.3. Tokiko erakundeak, autonomia-erkidegoak edo Ecoembesek, izendapenerako egindako aukeraren arabera, berreskuratu eta hautatu diren materialen trazabilitatea kontrolatuko dute birziklatzeko eta balorizazioko haien azken helmugara iristen diren arte, V. ERANSKINEAN aurreikusten denaren arabera, kudeatzaileek jaulkitako benetan birziklatu izanaren ziurtagiria barne dela.
- 14.4. Aurreko hitzarmenaren harira Ecoembesi komunikatu zaizkion izendapenak edo izendapen-eskuordetzeak luzatutzat joko dira, Ecoembesek kontraktorik komunikatzen ez badu.
- 14.5. Berreskuratzaileari edo birziklatzaileari dagokio paperezko eta kartoizko ontzi-hondakinen jabetza, tokiko erakundeak edo autonomia-erkidegoak hondakinok hari entregatzen dizkion unetik.

Berreskuratzaileari, birziklatzaileari edo balorizatzaileari dagokio hautaketa- eta tratamendu-instalazioetan berreskuratutako ontzi-hondakinen jabetza, hondakinok instalazioetatik ateratzen diren unetik.

## **15. artikulua Berreskuratutako materialen zehaztapen teknikoak (BMZT)**

- 15.1. Paperaren gai bakarreko gaikako bilketatik datozen eta tokiko erakundeak edo autonomia-erkidegoak sailkapen-zentroetan edo papera birziklatzeko instalazioetan entregatzen dituen paperezko eta kartoizko ontzi-hondakinek hitzarmen honetako IV. ERANSKINEAN jasotzen diren BMZTak izango dituzte erreferentziatzat.
- 15.2. Hautaketa- eta tratamendu-instalazioetan berreskuratzen diren ontzi-hondakinek hitzarmeneko IV. ERANSKINEKO BMZTak bete beharko dituzte.

BMZTak betetzen diren egiaztatzeko, materialen kalitatea kontrolatzeko neurriak hartu ahal izango ditu, IV. ERANSKINEAN deskribatzen den prozedurari jarraikiz. Instalazio guztietan garatu ahal izango dira kalitatea egiaztatzeko mekanismoak, edozein dela ere Erakundeak berreskuratzaileak edo birziklatzaileak izendatzeko hautatutako aukera.

Hautaketa- eta tratamendu-instalazioko titularra den Erakundeak Ecoembesi esleitu badio materialen kudeaketa eta Ecoembesek izendatutako berreskuratzaile edo birziklatzaile bat ados ez badago, IV. ERANSKINEAN jasotzen den prozeduraren arabera ebatziko da desadostasun hori.

- 15.3. Ecoembes-ek BMZTak aldatzea proposatu ahal izango du, hainbat arrazoiengatik izan duten bilakaera jaso dezaten, hala nola hobekuntza teknologikoak, merkatuaren beharrak, materialen kalitatea edo material birziklatua txertatzeko helburuen betetze-maila, betiere irizpide teknikoek, zirkulartasun-irizpideen eta irizpide operatiboen arabera.



## V. KAPITULUA

### KONTROLA ETA JARRAIPENA

#### **16. artikulua Atxikitako tokiko erakundeek eta autonomia-erkidegoak egin beharreko kontrola eta jarraipena**

- 16.1. Autonomia-erkidegoak eta atxikitako tokiko erakundeek beharrezko kontrol-neurriak ezarriko dituzte, operazio guztiak behar bezala egin eta dokumenta daitezen ziurtatzeko eta, zehazki, Ecoembesen ekarpen ekonomikoa kalkulatzeko oinarritzat balioko duten elementuen baliozkotasuna ziurtatzeko. Halaber, operazio horietan desbideraketak edo arau-haustekak detektatuz gero, beharrezko neurri zuzentzaileak hartu beharko dituzte, eta Ecoembesi hitzarmen hau egikaritzean eragina duen edozein inguruabarren berri eman beharko diote.
- 16.2. Zehazki, autonomia-erkidegoak eta atxikitako tokiko erakundeek konpromisoa hartzen dute identifikazio-agiriak eta artxibo kronologikoko datuak eta hondakinak behar bezala —material bakoitzaren transakziorako indarrean dagoen araudiaren arabera— kudeatzen direla egiaztatzen duten agiriak betetzeko edo, hala badagokio, haien operadore eta birziklatzaile, berreskuratzailerik edo balorizatzaileei agiriok betearazteko, benetan birziklatu izanaren ziurtagarria eta kudeaketa-memoria barne direla.
- 16.3. Dituzten eskumenen esparruan, autonomia-erkidegoak eta atxikitako tokiko erakundeek konpromisoa hartzen dute ontziak gaika biltzeko sistemak kontrolatzeko eta babesteko bitartekoak martxan jartzeko, zerbitzu horiek emateko izendatu ez diren eragileak nahas ez daitezen bermatuko dutenak. Era horretako egoerarik gertatuz gero, Jarraipen Batzordeak behar adina informazio eskuratzeko behar diren neurriak hartuko ditu, egoera horrek helburuen betetze-mailaren jarraipenean eraginik izan ez dezan.
- 16.4. Halaber, autonomia-erkidegoak eta atxikitako tokiko erakundeek IV. ERANSKINEAN deskribatzen diren jarraipeneko prozedura operatiboak aplikatzeko behar diren bitarteko guztiak jartzeko konpromisoa hartzen dute, baita Ecoembesi edo hark kontratatzen duen enpresari horretarako behar diren operazioak garatzen laguntzeko konpromisoa ere.
- 16.5. Autonomia-erkidegoak hala eskatuz gero, Ecoembesek haren eskura jarriko du bere lurralde-eremuko tokiko erakundeetatik eskuratzen duen informazioa, kapitulu hau garatzeko egiten dituzten jarduketei buruzkoa.

#### **17. artikulua Ecoembesek egin beharreko jarraipena**

- 17.1. Hitzarmen honen esparruan garatzen diren operazio guztiak behar bezala egin daitezen ziurtatzeko behar diren mekanismoak martxan jarriko ditu Ecoembesek. Ondore horietarako, autonomia-erkidegoak eta atxikitako tokiko erakundeek Ecoembesek atal honetan aurreikusten diren jarduketak egin ditzan ahalbidetu eta lagunduko dute eta, hala badagokio, konpromiso

hori jarduera bakoitza garatzen duen enpresen esku utziko dute. Jarraipena egin daiteke agiriak egiaztatzeko zein jarduera ezberdinen garapena egiaztatzeko, IV. ERANSKINEKO jarraipen-prozeduren garapena barne. Jarduketa horiek Ecoembesek berak egin ditzake, edo hark kontratatutako enpresek, eta jardueretan ahalik eta interferentziarik txikiena eragin beharko dute.

- 17.2. Zehazki, instalazioetatik irteten diren fluxuak eta instalazioetara sartzen direnak hautatutako materialei dagokienez haien artean koherenteak direla egiaztatzeko neurriak ezarri ahal izango ditu Ecoembesek, sarrera-fluxuen osakeraren, instalazioen teknologiaren eta material mota bakoitzerako aurreikus litezkeen berreskuratze-errendimenduen arabera. Horretarako, instalazioetan bertan azterketak egin ahal izango ditu Ecoembesek. Zehazki, instalazioek ontzi arinetarako eta errefusarako tratamendu-linea bikoitza izatea egiaztatuko da, eta materialen fluxuak erabat berezita izatea, materialak iristen direnean, tratamendu-prozesuan zein amaierako biltegiratze-prozesuan, berreskuratzaileek/birziklatzaileek eramaten dituzten arte. Halaber, transferentzia-estazioetan sartzen diren fluxuen eta irteten direnen arteko koherentzia egiaztatzeko berariazko neurriak ezarri ahal izango ditu.
- 17.3. Erakunde titularrak eta/edo jardueraz arduratzen den operadoreak galarazten duelako edo kolaboratzen ez duelako —eta horretarako justifikatutako arrazoirik gabe— jarraipenerako prozedurak gauzatu ezin badira, komunikazioa egiten denetik hiru hilabete igaro ondoren, Ecoembesek garatutako operazioekin lotutako ordainketak atxiki ahal izango ditu, eta horren berri emango dio Jarraipen Batzordeari. Jarraipeneko prozedurak batere justifikaziorik gabe behin eta berriz galarazten badira, arau-hauste larritzat joko da erakunde horrekin dagoen hitzarmena suntsiarazteko ondoretarako.

### Bilakaera teknologikoak

Hitzarmenak indarrean dirauen bitartean gertatzen den bilakaera teknologikoa dela eta, baliteke Ecoembesen ekarpen ekonomikoa kalkulatzeko eta EEHSK sistemaren esparruko kudeaketa-operazioak egiaztatzeko oinarritzat balio duten elementuen kontrol eta jarraipenerako ezarritako mekanismoak sinplifikatzea, eta materialen trazabilitatea eta EEHSK sistemaren funtzionamenduaren informazioaren kalitatea hobetzeko ere balio dezake.

Ecoembesek helburu horrekin haien eskura jartzen dituen tresna teknologikoak eta prozedura elektronikoak erabiltzeko konpromisoa hartzen dute autonomia-erkidegoak, tokiko erakundeek eta Ecoembesek. Halaber, haien operadore eta birziklatzaileei, berreskuratzaileei edo balorizatzaileei tresna eta prozedura horiek ezar eta erabil ditzaten eskatzeko konpromisoa hartzen dute.

## VI. KAPITULUA

### AZKEN XEDAPENAK

#### **18. artikulua Indarrean sartzea eta iraupena**

Sinatzen den egunean sartuko da indarrean hitzarmen hau.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.h) artikuluan ezarritakoari jarraikiz, esparru-hitzarmen hau sinatzen denean sartuko da indarrean, eta lau urteko iraupena izango du, nahiz eta lehenago ere indargabetu daitekeen, ondorengo artikuluan zerrendatzen diren arrazoietakako edozeinen ondorioz. Indarraldia amaitu baino lehen, luzatu egin ahal izango da beste lau urtez, alderdien arteko akordio bidez.

2024ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko dira hitzarmen honetan arautzen diren erantzukizun finantzarioak.

Behin hitzarmenaren indarraldia amaitu ondoren alderdiak ez badira iritsi beste hitzarmen bat sinatzeko akordiora, hitzarmen honetan aurreikusten diren baldintzak aplikatzen jarraituko da behin-behinean, Errege Dekretuaren 33.4 artikuluan arautzen den arbitraje-laudoa ematen den arte. Aipatutako laudoak inola ere ez du izango atzerako indarrik.

#### **19. artikulua Hitzarmena alde zuzenetik suntsiaraztea eta desegitea**

Hitzarmen hau suntsiarazi egingo da:

1. Hitzarmen honetan finkatutako iraunaldia amaitzen denean.
2. EEHSK sistemaren baimena indargabetu, iraungi edo ezeztatzen denean.
3. Alderdien arteko adostasunez.
4. Alderdietako batek hitzarmen honetan bere gain hartutako eta eratorritako obligazioen ez-betetze astunagatik.
5. Indarrean dagoen arau-esparruan aurreikusitako beste edozein arrazoiren ondorioz, alderdietako edozeinek eskatuta.

#### **20. artikulua Suntsiarazpenaren ondorioak**

Aurrez aurreikusitako moduan hitzarmen hau suntsiaraz dadin eskatzeko unean zerbitzuak modu eraginkorrean eta frogatuan eman badira eta ordaintzeke baldin badaude, Ecoembesek autonomia-erkidegoaren edo tokiko erakundearen alde sortutako konpentsazioa ordaindu beharko du.

#### **21. artikulua Hitzarmena aldatzea**

EEHKS sistemari emandako baimenaren baldintzetan aldaketaren bat egiten bada eta aldaketa horiek hitzarmen honen xedapenetan eragina badute, alderdiek aldaketok hitzarmenean txertatu beharko dituzte, eranskin baten bitartez.

Halaber, legezko xedapen edo erabaki judizial batek eragingo balu hitzarmen honetan aldaketaren bat egin beharra, alderdiek konpromisoa hartzen dute beste alderdiari lehenbailehen horren berri emateko eta hitzarmena dagokion legezko xedapenean edo erabaki judizialean aurreikusitako baldintzetan eta epeetan betearazten jarrai dadin ziurtatzeko behar diren neurri guztiak hartzeko. Alderdi biek hartzen dute hirugarrenekin egiten dituzten hitzarmenetan eta/edo kontratuetan antzerako klausula bat txertatzeko konpromisoa.

Azkenik, Ecoembesek beste autonomia-erkidego batzuekin xede bereko hitzarmenak sinatuko balitu eta hitzarmen horietan autonomia-erkidego edo atxikitako tokiko erakundeentzako hitzarmen honetan hitzartutakoak baino baldintza onuragarriagoak edo hobeak hitzartuko balitu, alderdiek hitzarmen honetan —eranskin modura— baldintza horiek berdintzea ahalbidetuko duten klausula berdinak txertatzea adostuko dute, baldin eta autonomia-erkidegoaren lurralde-eremuko kudeaketa-sarearen izaera edo ezaugarriak kontuan hartuta posible bada.

## **22. artikulua Jarraipen Batzordea**

Alderdiek adosten dute hitzarmen honetan berariaz ebazten edo aurreikusten ez diren gai eta arazo guztiak, eta hitzarmena interpretatzearekin eta betearaztearekin zerikusia duten gai guztiak Jarraipen Batzorde bati aurkeztea; batzorde hori, batetik, .....  
...(e)k eta, bestetik, Ecoembesek hautatutako bi kidez osatuta egongo da eta, aldian behin, aholkulari teknikoen, juridikoen eta kontabilitateko aholkularien laguntza jasoko dute.

Batzordearen helburua izango da sor litezkeen gaien inguruko adostasunak lortzea eta, hala badagokio, hitzarmen hau egokitzeko eta aldatzeko erabakiak adostea.

Halaber, tokiko erakundeek hitzarmena aplikatzean sor litezkeen auzigaiak argitzeko partaidetza-bide gisa erabil dezaten ere balioko du Batzorde horrek.

Jarraipen Batzordea hitzarmen hau sinatu eta berehala geldituko da eratuta, eta alderdietako bakoitzak hitzarmena sinatzen denetik bi aste epea izango du beste alderdiari bere ordezkariak zein izango diren jakinarazteko. Autonomia-erkidegoaren ordezkari bat izango da Batzordeko lehendakaria, eta Ecoembesen ordezkari bat, berriz, idazkaria.

Alderdietako edozeinek eskatuta elkartuko da Jarraipen Batzordea. Hitzarmenaren garapenean gorabehera larriren bat gertatzen bada, alderdietako edozeinek egin ahal izango du ez-ohiko eta premiazko batzarra egiteko deialdia, eta 15 eguneko gehieneko epean erantzun beharko dio deialdiari beste alderdiak. Deialdia jasotzen denetik hilabete bateko gehieneko epean egin beharko da batzarra. Deialdia jaso duen alderdiak adierazitako epean erantzuten ez badu, edo ez-ohiko batzarra egin eta alderdiek ez badute eztabaidagaiari buruzko adostasunik lortzen, hirugarren baten esku-hartze ebazlea

hitzartu ahal izango da, eta alderdi biek onartu beharko dute haren ebazpena. Ebazpen horrek Arbitrajeari buruzko 60/2003 Legean adierazten diren ondoreak izango ditu.

### **23. artikulua Bete gabe dauden konpromiso ekonomikoetarako araubide iragankorra**

Tokiko erakundeek edo, hala badagokio, autonomia-erkidegoak ..... arteko epea izango dute ..... arte emandako zerbitzuengatik eta bestelako jarduketengatik sortutako fakturak aurkezteko; behin epe hori igaro ondoren, iraungitzat joko dira data hori baino lehenagoko Ecoembesen konpromiso ekonomikoak.

### **24. artikulua Eskudun jurisdikzioa**

Hitzarmen hau administratiboa da, administrazioaren ordenamendu juridikoak eraentzen ditu haren interpretazioa eta garapena, eta alderdiek berariaz egiten diote men administrazioarekiko auzien jurisdikzioari.

\* \* \* \*

Eta adierazitako guztiarekin ados daudela ziurtatzeko, bi aldeek hitzarmen honen bi ale sinatzen dituzte, goian aipatutako lekuan eta egunean.